

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK:**

- Gure enpresako funtsezko baliabideak lau ataletan banatuko dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektuala, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

**Baliabide fisikoak:** Lan egiteko ordenagailua, gure dendako web gunea administratzeko. Telefonoa /enpresako mobila, gure bazkide eta erosleen deiak jasotzeko. Lentillak fabrikatzeko baliabideak, gure erosleei saltzeko behar ditugun produktuen baliabideak. Boltsa txikiak gure logoekin, gure produktuak erosterakoan boltsa txiki bat emango diegu denda ezagunagoa egiteko. Enpresako motoa, erosleei lentillak etxera emateko enpresako ibilgailua.

**Baliabide intelektuala eta giza baliabideak:** Hodeiek dituen informatikako ezagutzak gure web gunea sortzeko erabiliko ditugu, gure web gunean denbora asko inbertitu nahi dugu; izan ere, enpresako atalik garrantzitsuenetariko bat da. Xabat eta ni salmentaz arduratuko gara, baita ere enpresaren publizitateaz, gure web gunea ezaguna egin dezan teknika desberdinak probatuko ditugu. Azkenik, Ekhi gu hiruo laguntzen joango da, bere sormena eta habileziak erabiliz.

**Finantza-baliabideak:** Hasieran gure proiektuak funtzionatu dezan gure aurrezkiak erabiliko ditugu, gutxinaka gutxinaka publizitateari esker salmenta handitzen joango gara eta horri esker hasieran inbertitutako dirua errentatuko dugu.